

EUSKOTRENEK GIPUZKOAKO ZERBITZUAN 6 AUTOBUS HIBRIDO BERRI GEHITUKO DITU

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, bigarren belaunaldiko 6 autobus Scania berri erosi ditu, teknologia paraleloko motorizazio hibridorik aurreratuenarekin, datozen asteetan pixkanaka Lurraldebus foru-sistemak Gipuzkoan duen zerbitzuan sartuko direnak.

Autobus hibridoen sartze berri hauek (Euskotreneko errepideko zerbitzuan ezaugarri hauekako lehenak) Konpainiak Gipuzkoan duen flotaren zati bat berritzea da, 2007an matrikulatutako 6 autobus ordezkatzuz.

Hain zuzen ere, 6 autobus Scania Lurraldebus lineako Debarrena eta Urola Kosta lineetako zerbitzura gehituko dira: DB04 Mallabia-Ondarroa, DB06 Sorluze-Ondarroa eta UK09 Zumaia-Donostia.

Ibilgailu berriek 2 ardatz eta 12,75 metroko luzera dute, eta Low Entry modelokoak dira. Motor elektriko bat dute, erregaia aurrezteko ahalbidetzen duena, eta baldintza onenetan %30 ere izan daiteke. Proporzio berean, atmosferara isurtzen diren CO2 eta NOx partikulen aurrezpena errazten du.

Autobus hibridoen belaunaldi berri horrek osagai osagarri guztien elektrifikazio handia du, eta horrek motor termikoaren deskonexioa ahalbidetzen du eragiketa askotan, batez ere hirien barruan. Horren ondorioz, nabarmen murrizten dira emisioak eta kutsadura akustikoa.

Irisgarritasun- eta segurtasun-sistema aurreratuenak dituzten ibilgailuek denbora errealean ematen dute gidatzeko moduari buruzko informazioa, eta langileei aholkuak ematen dizkiete kontsumoa are gehiago murrizteko, sistema optimizatuz.

Euskotrenek, mugikortasun iraunkorraren aldeko apustuaren barruan, eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek bere errepide-zerbitzuen kasuan ezarritako jarraibideak betez, etengabe berritzen du autobusen eta ibilgailu osagarrien flota, ezarritako epeetan. Orain zerbitzuan sartuko diren 6 autobus hibridoek gain, epe laburrean 3 autobus artikulatu (diesel Euro 6-D) jarriko dira zirkulazioan, 2007an matrikulatutako 3 autobus Euro 4ren ordeiz.

Igorpen data: 2020/05/22